

LITERATURA LEHIAKETAREN OINARRIAK

“DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019”

Durangon egoitza duen DURANGOKO CULTURALAK “**DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019**” literatura lehiaketa antolatu du. Landu nahi den modalitatea kontakizun historikoa edo nobela eran idatzitako kontakizuna da, eta gaia DURANGOKO KULTURALARI lotutakoa izan behar da.

Honakoak dira lehiaketa honen oinarri zehatzak:

- 1.- Edozeinek parte hartu dezake, nazionalitatea edozein dela. Kontakizun historikoak edo fikziozkoak, ordea, EUSKARAZ idatziak beharko dute izan, originalak eta inolako formatutan argitaratu gabeak -ez osorik ez zatika- (Interneten ere ez). Halaber, saritu gabeak izan beharko dute, ezingo dira izan beste lehiaketa batzuetako ebazpenaren zain daudenak, ezta editatzeko prozesu baten erantzunaren zain daudenak ere. Lehen arau hau bete ezik, parte hartzailea lehiaketatik kanpo geratuko da berehala.
- 2.- Gaiak lotura izan behar du DURANGOKO KULTURALAREKIN.
- 3.- Originalak mekanografiatuta egon behar du lerroen arteko tarte bikoitzaz eta 12 puntuko Arial, Times New Roman edo antzeko letra tipoan. Dokumentuaren formatua A-4 izango da, orrialde batetik bakarrik idatzita.
- 4.- Idazlanaren originala formatu digitalean bakarrik aurkeztu behar da, ondoko helbide elektronikora bidali behar da: info@culturaldurango.org.
- 5.- Mezuaren gaia atalean, honakoa aipatu behar da: “**DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019**” literatura lehiaketa. Mezu berean artxibategi bi bidali behar dira Word formatuan:

- a) IDAZLANAREN TITULUAREKIN letra maiuskulaz idatzita duen artxibategian, idazlana bidali behar da izena eta ezizena idatzita. Lehenengo orrialdeko goiburuan, IDAZLANAREN IZENA idatzi behar da; azpiko lerroan, izena edo ezizena eta, ondoren, testua. Ez dira

onartuko marrazkiak, kanpoko estekak edo bestelako apaingarriak dituzten testuak.

b) Bigarren artxibategiaren izena IDAZLANAREN TITULUA izango da, letra maiuskulaz idatzia eta ondoko datu pertsonalak bidali behar dira: Idazlanaren titulua• Ezizena• Izen-abizenak• Jaiotze datuak: urtea, herri/hiria eta herrialdea• Bizilekuaren helbide osoa, herrialdea barne• Telefonoak• 2 posta elektronikoko

c) Datuak funtsezkoak direnez, gehienbat, lehiaketan onartutakoen berri emateko orduan, hasieratik ez badira datu den-denak bidaltzen, atzera botako dira baldintza hau betetzen ez duten bidalketak.

6. – Eskakizun formalak:

a) Idazlanak, gutxienez, 50 orrialde izango ditu, eta gehienez, 150.

b) Onartuko dira kontakizun edota anekdota-laburren bildumak.

c) Orrialdeak zenbakituta aurkeztu behar dira; ortografia akats barik.

d) Arauok ez betetzeak lehiaketatik kanpo gelditzea dakar.

7.- Sari bakarra izango da: kontakizun onena.

8.- Saria MILA EURO izango da.

9.- Idazlanak bidaltzeko azken eguna 2019ko urriaren 1a (23:59an) izango da.

10.- Erabakia apelaezina izango da, eta 2019ko azaroaren 10eko jendaurreko sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko da. Sarituak ezinezkoa badu bertaratzea, ordezkari bat baimendu ahalko du bere izenean saria hartzeko.

11.- Durangoko Kulturalak, urtebeteko epean, eskubidea du saritutako idazlanak argitaratzeko eta edozein hedabideren bidez zabaltzeko, egileari ordain-saririk eman barik eta, beti ere, egokia dela erabakitzen badu. Halaber, epe hori bukatutakoan ere, saritutako idazlanak argitaratzeko eta edozein hedabideren bidez zabaltzeko ahalko ditu, egileei ordain-saririk emateko batere beharrik gabe.

12.- Lehiaketa honetako Antolaketa Batzordeak eta Epaimahaiak, testuei dagokienez, ez dute parte hartzaileekin harreman batere izango, eta ez dute inolako informaziorik emango, ez bada Sari-ematearen Akta Ofizialean bildutako erabakia.

13.- Epaimahai-kideak nor diren lehiaketaren epaiaren berri ematen denean jakinaraziko da.

14.- **“DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019”** literatura lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar, eta berauen interpretazioa Elkarteari eta Epaimahaiari dagokie.

Informazioa: info@culturaldurango.org.

